

Bero-beroan

Euskaltegiak eta Euskara Zerbitzuak kexu Nafarroan

EUSKARAZKO HEDABIDEEK hartu zuten protagonismoa duela hilabete batzuk, zoritxarrez. Diru-laguntzak 10.000 euroren azpitik utzi zituen Nafarroako Hezkuntza Kontseiluak. Orain euskaltegiak eta Euskara Zerbitzuak dira kezkatuta daudenak. AEK-ko eta IKAKo arduradunek publiko egin dute kezka, hauxe esanez: “Inor gutxi espero zuen aurreko hizkuntza politika erabakitzen zuen kontseilariaren diskurtsoa Xabier Azanza Euskarabideko

zuzendariak bere hain azkar egitea”. Aurten, Nafarroako Gobernuak 309.000 euroko laguntza eman die IKA eta AEKren euskaltegiei, 2001ean baino %40 gutxiago.

Euskara Zerbitzuak, Fernando Pèrez de Viñaspre Hizkuntza Politikarako buru zen garaian, diru-laguntzak 700.000 euroren inguruan ibiltzen ziren. Pedro Pegenauteren garaian, 2005ean, kopuruak ia erdira jaitsi ziren. Euskarabidea sortzearekin batera kopuruak gora egin zuen 500.000 eurora. Orain, 297.000 euro jasoko dituzte Euskara Zerbitzuek. Laguntza horrekin kinka larrian egongo direla azaldu dute Euskara Zerbitzuetako arduradunek.

Galego zaleak PPri begira

XUNTA BERRIAK ez ei dio galegoari fabore handirik egingo, PPren gobernuaz beldur da behintzat galiziar asko. Joan den asteburuan 20.000 pertsona bildu ziren Santiago de Compostelan A Mesa pola Normalización Lingüística plataformaren eskutik. Haurrek zermatzaten karteak honela zioten: “*Señor Feijóo, queremos jugar y aprender en gallego*”. Irakaskuntzan orain dagoen dekretua bertan behera geratuko den beldur dira.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

BAHEA

TALAIAN

Europar mobilizazioa eta greba orokorra

Ekonomia krisia langileen eta sindikatuen gero eta erantzun gogorragoa jasotzen ari da. Europar langabeziak izan duen gorakadak arduratu egin ditu orain arte zuhertasunez itxaron duten sindikatuak. Momentu honetan baina, langile klasea krisiaren ondorioak jasaten ez ezik, bere bizitzarekin ordaintzen ari da. Horrela, joan den asteburuan, hilaren 14, 15 eta 16an, Europako Sindikatuen Konfederazioak manifestazioak antolatu zituen Madrilan, Bruselan, Berlinen... CCOO Bilbon mobilizatu zen. Manifestazio horiekin *New Deal* (“paktu sozial” berria) europarraren alde egin zuten, langabeziaren aurrerakada geldiarazi eta aurten, Europa osoan, %12ra irits dadila saihesteko. Kaleratzeen kontrako plan berezia eskatu zuten, lanegunaren murrizketa eta konpentsazio mekanismoetan oinarritutakoa, soldaten jaitsierarik ez izateko.

Ostegunean, hilak 21, Hego Euskal Herrian greba orokorrera deitu du gehiengo sindikalak (ELA, LAB, ESK, EHNE, STEE-EILAS, HIRU). CCOO eta UGT kontra azaldu dira, esanez ez dela momentu egokia eta ez zitzaizela lehenago galdetu. Salbuespenezko neurri honen bidez, deialdia egin dutenek enplegua suntsitzea salatu nahi dute —urtebetean %42 igo da—, bai eta patronalaren xantaia etengabea ere beren hitzarmenak negoziatzeko garaian. Modu berean, krisiari Euskal Herritik aurre egiteko instrumentuak exijitzen dituzte. Kapitalismoa salbatzeko nazioarteko Gailurugariren ondoren, langile klasearen eta herri sektoreen ordua heldu da, haiek baitira krisiaren ondorioaren zama gainean daramatenak.

Juan Mari Arregi

Ramon Etxezarreta, Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak Deian esanak: “Eginbehar berriari uko egitea nire diskurtsoa sinesten ez nuela onartzea litzateke. Beharrezkoa ikusten dut Euskal Herriarentzat nazionalista ez den proiektu bat. Ez-nazionalismoaren eta euskararen arteko lotura publikoki jende gutxi mantentzen dugu oraindik, ezin dugu ukatu, bidea hori da (...) Patxi Baztarrikak lan handia egin du. Hizkuntz politikaren lidergo instituzionala berreskuratu du eta gainditzeko zailak izango diren adostasunak lortu ditu. Saiatuko gara hala ere”.

Aingeru Epaltzak Noticias de Gipuzkoan esanak: “Ibarretxe lehendakari izan den bitartean Gasteizko Gobernuak asots handirik gabeko laguntza politika eraman izan du Nafarroako eta Iparraldeko euskarazko irakaskuntzari, hedabideei eta kultur produkzioari begira. (...) Jaurlaritza berriarekin euskaltzaleek ez dugu noski beldur egon behar. Sos bat ere ez zaio noski kenduko euskarari. Hala ari zaizkigu behin eta berriz PSE-EEko buruzagiak. Egiaz ari diren, berehala izanen dugu ikusteko parada”.

Sufrimendua dekretuz ezabatzen denean

GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

ASKATASUNA galdu duten pertsonak, teorian horixe dira presoak Espainiako legediarentzat. Gainerakoan herritar arruntak dira. Eta askatasunaren galera, nagusiki bergizartetzeko akuilua da. Hori baino askoz gehiago ere bada, jakina, baina Espainiako Konstituzioak helburu hori aitortzen dio bertako espetxe legedi eta espetxe sistemari oro har.

Edozein espetxe sistematan moduan, zigorrarena ere osagai oinarrizkoa da Espainiakotan. Kartzela eta askatasun galera bat dira, eta espetxe sistema aurreratuenak ere askatasunaren galera mehatxu hori funtsezko tresna gisa erabiliko du gizartea babesteko eta bergizartetzea bultzatzeko.

Baina mendekuarena ere aitortu gabeko funtzio klabea da espetxe sistema gehienetan, eta Espainiako kasua ezagutzen duenak berehala ohartuko da horretaz, areago tartean euskal gatazkarekin lotutako presoak baldin badira. ETaren errepresioan, gainera, tresna giltzarri ere bada. Eta hortik datorkio miseria guztia, presoak –pertsonek– edozein erabiltzen direla helburu politiko-polizialak lortzeko. Eta ez bakarrik 750 preso, sakabanaketaren bidez haien milaka familia kide ere gupida barik erabili eta zigortzen dira milaka kilometro egitera, istripuetara eta dirutzak xahutzerara... Edo pertsona zahar eta ezinduen kasuetan senideak ez ikustera.

SAKABANAKETAREN ondorioak dira gehien gizarteratzen direnak, baina ez da zigorra eta mendekurako



tresna bakarra. Azken hamarkadan hartutako neurri guztien artean bi azpimarra daitezke bereziki: lehena, 30 urteko gehieneko espetxe zigorretik 40 urtera iragatea (osorik bete beharrekoak, espetxe urte barkamenik gabekoa); bigarrena, Parot legea moduan ezagutzen dena, ikuspegi moral eta juridikotik hartutako neurri maltzurrena seguruenik. Milaka eta milaka pertsonak sufritzen dute errealitate hori Euskal Herrian. Sufritu bai, hitzak bere baitan duen esanahiarekin.

Eta horrek guztiak elkartasun amaraun tinkoa sortu du Euskal Herrian. Doaneko zigorra eta mendekuaren aurrean era konzentrikotan hedatzen den elkartasuna, bai presoarekiko eta baita senideekiko ere modu askotan adierazten dena: mobilizazioekin, presoaren argazkiarekin, Euskal presoak Euskal Herrira lelo eta banderarekin, bidaietarako diru ekarpenarekin, "eman gorantziak" merke baina adierazgarriarekin, iragarkiekin, irribarre eta animoekin...

Sufrimendu horrek guztiak ez du existitzen, ordea, eta are gutxiago elkartasunik. Politika antiterroristaren gidariek aspaldi erabaki zuten sufrimendu hori dekretuz ezabatu behar zela eta Euskal Herrian bortizkeria eta atsekabe bakarra ETak eragindakoa zela. ETaren biktimak besterik ez zirela. Eta Estatuak eragindako bestelako sufrimendurik ez denez, elkartasunak ere lekurik ez duela; eta elkartasun agerpen oro ez dela berez halakorik baizik eta terrorismoaren apologia. Parot legea indarrean jartzeko arazorik ez duenak, nola kezkatuko da argazki bat kentzeagatik? Edo gasoila ordaintzeko diru-laguntza batzuk ezabatzeagatik?

Sufrimendua eta elkartasuna dekretuz eta poliziaz ezabatu nahi dituenak ez du giza eskubideekiko eta biktimizekiko lidergo legitimorik bereganatuko. Euren artean bai akaso, gizartearen gehiengo zabalaren aurrean ez. Lopez lehendakariak ere ez.